Urretxuko udala

## UDALAREN OSOKO BILKURA

## 2011ko APIRILAREN 14an EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIA

**Elkartutakoak**

**Alkatea**
Iñaki Zabala Bengoetxea, jauna

**Zinegotziak**
Gorka Garmendia Albarracín, jauna
Lourdes Beloki Goenaga, andrea
Mª Angeles Ostiza Mendia, andrea
Jose Mª Lete Azpiazu,jauna
Onintza Mendia Peinado, andrea
Jose Luis Cantero Morcillo, jauna (P.S.E.-E.E:)
Amanda Pastor Tornero, andrea (P.S.E.-E.E)
Itziar Agirre Berriotxoa, andrea ( E.A.J)
Jose Andrés Martín Sánchez, jauna ( EB-Berdeak /Aralar

**Idazkaria**
Mª Jose Begiristain Zabalo andrea

**Kontuhartzailea**
Sara Arrizabalaga Arbulu andrea

**Azaldu ez dena**
Jose Angel Lizarraga Zabaleta, jauna
Gemma Zabaleta Areta, andrea ( PSE-EE.)
Angel Errazu Garate, jauna ( E.A.J.)

Urretxun bi mila eta hamaikako apirilaren hamalauan.

Arratsaldeko seiak direnean, aldez aurretik deitutako aparteko batzarraldia egiteko, Udalbatza bildu da udaletxeko

En Urretxu a catorce de abril de dos mil once.

Siendo las dieciocho horas se reune en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la

batzar areto nagusian; goian agertzen diren udal-bazkideak elkartu dira.

Lehendakariak ekitaldiari hasiera eman ondoren, eta bere aginduz, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiak eztabaidatzeari ekin diote.

**1.- Urretxuko planeamenduko AASSen berrikuspena, derrigorrezko txostenen zuzenketak eta dagokion IEEB sartuta: Onarpena**

Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenerako irizpide eta helburuen dokumentua (aurrerapena), Urgari, S.L.ko Juan Jose Uranga arkitekto jaunak idatzia, jendaurrean erakutsia izan zen, 2003ko martxoaren 24an Udalbatzak erabakia hartu eta gero. Legez ezarrita dauden jendaurreko informazio epeak igaro ondoren, aipatutako irizpide eta helburuak behin-betiko ezarrita geratu ziren, hein zuzen ere 2004ko irailaren 27ko osoko bilkuran Udalbatzak erabakia harturik.

2005eko uztailaren 11n, aipatutako udal organoak hasierako onespena eman zion Planeamenduko AASSen Berrikuspen dokumentuari, Injelan, S.L.ko Miren Muñagorri eta Antton Jaime teknikariek idatzitako dokumentua.

Hasiera batean onartutako AASSen

Corporación al objeto de celebrar sesión extraordinaria para la que había sido convocada y a la que asistieron los Señores Corporativos que arriba se indican.

Abierto el acto por la Presidencia, y de orden de la misma se pasó a tratar de los asuntos relacionados en el Orden del Día.

**1.- Revisión NN.SS de planeamiento de Urretxu introducidas las correcciones de los informes preceptivos y su correspondiente ECIA: Aprobación**

El documento de criterios y objetivos para la Revisión de las Normas Subsidiarias de planeamiento, (Avance) redactado por Urgari S.L. en la persona del arquitecto D. Juan Jose Uranga fue sometido a la preceptiva información pública tras acuerdo plenario adoptado el 24 de marzo de 2003. Tras los períodos de información pública establecidos legalmente, dichos criterios y objetivos quedaron fijados definitivamente tras acuerdo adoptado por el Ayuntamiento Pleno el 27 de septiembre de 2004.

Con fecha 11 de julio de 2005, el citado órgano municipal aprobó inicialmente el documento de Revisión de NN.SS. de planeamiento redactado por los técnicos de Injelan S.L, Miren Muñagorri y Antton Jaime.

Este documento de Revisión de NN.SS

Berrikuspen dokumentu honek, besteak beste, ingurumen inpaktuaren ebaluazioari buruzko Azterlana jasotzen du, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak eskatzen duena.

Hasierako onespenaren ondoren, ingurumen inpaktuaren ebaluazio bateratuari buruzko prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren 17. artikuluak eskatzen duen txostena eskatu zen; horretarako epea igarota, EAEko ingurumen organo eskudunak ez zuen txosten hori egin, eta beraz, jarraipena eman zitzaion prozedurari.

2006ko abenduaren 29an egindako osoko bilkuran behin-behineko onarpena eman zitzaion 2005eko abenduan idatzitako Planeamenduko AASSen Berrikuspen dokumentuari, beti ere Udalak ontzat hartutako alegazioak bertan jasota.

2007ko urtarrilaren 24an, Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zen espedientea, behin betiko onespena emateko.

2007ko irailaren 18an egindako osoko bilkuran, Udalbatzak erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea Planeamenduko AASSen Berrikuspen espedientearen tramitazioa eten zezan, hain zuzen ere udal gobernu berriaren gehiengoaren iritziz dokumentuan jasotako determinazio batzuk hausnarketa behar dutelako berretsiak izan aurretik, edo hala badagokio, berrikusiak izan zitezen, beti ere

aprobado inicialmente, cuenta, entre otros, con el Estudio de evaluación de impacto ambiental exigido por la Ley 3/1998 de 27 de febrero, de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

Tras la aprobación inicial se solicitó el informe preliminar exigido por el art. 17 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental , informe que, transcurrido el plazo establecido al efecto, no se emite por parte del órgano ambiental competente de la CAPV, siguiéndose por tanto el procedimiento.

En sesión plenaria celebrada el 29 de diciembre de 2006 se aprueba provisionalmente el documento de Revisión de NN.SS de planeamiento redactado en diciembre de 2005, tras recogerse en el mismo las alegaciones estimadas por el Ayuntamiento.

Con fecha 24 de enero de 2007, se remite el expediente a Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación definitiva.

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 18 de septiembre de 2007 acuerda solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa la suspensión de la tramitación del expediente de Revisión de NN.SS de planeamiento, solicitud avalada porque el nuevo gobierno municipal opina mayoritariamente que algunas de las determinaciones contenidas en el documento merece una reflexión antes de ser confirmadas, o en

aurreikusia dagoen azterlan berriak gomendatzen dituen aldaketak sartu ahal izateko.

su caso, revisadas para introducir las variaciones que resulten aconsejables del nuevo estudio que se tiene previsto realizar.

Aipatutako eskaera ontzat hartu zuen Diputatuen Kontseiluak, 2007ko azaroaren 20an egindako bilkuran.

Dicha solicitud es estimada por el Consejo de Diputados en sesión celebrada el 20 de noviembre de 2007.

**Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspeneko Aldaketen** dokumentua idatzi ondoren, agiri horrek aldaketa garrantzitsuak ditu etenda geratu den Berrikuspen dokumentuarekiko, 2010eko urtarrilaren 25ean egindako osoko bilkuran Udalbatzak aipatutako dokumentua jendaurrean azaltzea erabaki zuen, hain zuzen ere bi hilabeteko epean. Jendaurreko erakustaldia eginda, 2010eko uztailaren 1eko osoko bilkuran, aurkeztu ziren alegazioak ebatzi zituen Udalbatzak, eta era berean, Urretxuko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspen Dokumentu osoari behin-betiko onespena eman zion, aldaketak txertatuta. Halaber, Udalbatzak erabaki zuen Udalak berak eskatuta egin zen etenaldia altxatzeko eskaera egitea Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta foru erakundeari dokumentu osoa eta espediente administratibo osoa bidaltzea, hain zuzen ere eta hala badagokio, behin betiko onarpena eman zezan.

Tras redactarse un documento de **Variaciones de la Revisión de Normas Subsidiarias de planeamiento**, que contiene variaciones que suponen modificaciones sustanciales respecto al documento de Revisión cuya tramitación se encuentra suspendida, el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 25 de enero de 2010, acuerda someter a información pública dicho documento, por un plazo de dos meses.
Efectuada la exposición pública, en sesión plenaria celebrada el 1 de julio de 2010, el Ayuntamiento Pleno procede a la resolución de las alegaciones presentadas y a la aprobación provisional del Documento completo de Revisión de las Normas Subsidiarias de planeamiento de Urretxu incluidas sus Variaciones. Asimismo acuerda solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que levante la suspensión efectuada a instancia del Ayuntamiento y remitir al ente foral el documento junto con el expediente administrativo completo para que otorgue, en su caso, la oportuna aprobación definitiva

2010eko azaroaren 17an, Euskal Herriko Lurralde Antolaketarako Batzordeak derrigorrezko txostena eta loteslea egin zuen, eta horren ondorioz, **Urretxuko Planeamenduko Arau**

Con fecha 17 de noviembre de 2010, el Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, emite informe, preceptivo y vinculante, del que deriva el documento de

Urretxuko udala

**Subsidiarioen Berrikuspenari buruzko Zuzenketak, aldaketak sartuta**, izeneko dokumentua sortu da.

2011ko urtarrilaren 13an egindako osoko bilkuran, Udalbatzak erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketarako Departamentuari berriz ere etena eskatzea, hain zuzen ere "Urretxuko Planeamenduko AASSen Berrikuspenaren Aldaketak jasotzen dituen Dokumentu Bateratuaren" behin betiko onarpenaren tramitazioa eteteko eskaera, beti ere Euskal Herriko Lurralde Antolaketarako Batzordeak egindako txostenetik ondorioztatzen diren zuzenketa funtsezkoenak txertatu ahal izateko. 2011ko urtarrilaren 25ean egindako batzarraldian Diputatuen Kontseiluak eskatutako etenaldia ontzat hartzea erabaki zuen.

Zuzenketen dokumentu honek aldaketa garrantzitsuak ditu 2010eko uztailaren 1ean behin-behineko izaerarekin onartu zen dokumentuarekiko, eta horregatik, Udalbatzak, 2011ko urtarrilaren 13an egindako batzarraldian erabaki zuen aipatutako zuzenketen dokumentua jendaurrean azaltzea hilabeteko epean.

Jendaurreko erakustaldia eginda, 2011ko otsailaren 28an egindako osoko bilkuran, Udalbatzak erabaki zuen behin-behineko onarpena ematea Urretxuko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspen Dokumentuari, aldaketak sartuta, hain

**Correcciones a la Revisión de Normas Subsidiarias de planeamiento de Urretxu, incluidas sus Variaciones.**

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 13 de enero de 2011, acuerda solicitar al Departamento de Ordenación del Territorio de Diputación Foral de Gipuzkoa, nuevamente la suspensión de la tramitación de la aprobación definitiva del "Documento Refundido introducidas las Variaciones de la Revisión de NN.SS de planeamiento de Urretxu", al objeto de introducir en el mismo las Correcciones más sustanciales que resultan del acuerdo-informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco. El Consejo de Diputados en sesión celebrada el 25 de enero de 2011 acuerda estimar la solicitud de suspensión solicitada.

Al entenderse que este documento de Correcciones contiene modificaciones de carácter sustancial respecto del aprobado provisionalmente el 1 de julio de 2010, el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 13 de enero de 2011, acuerda someter dicho documento de Correcciones a información pública durante el plazo de un mes.

Efectuada la exposición pública, el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 28 de febrero de 2011 acordó aprobar provisionalmente las Correcciones a introducir en el Documento de Revisión de las Normas Subsidiarias de

zuzen ere Euskal Herriko Lurralde Antolaketarako Batzordeak egindako txostenaren ondorioz ateratako aldaketak (2010-11-17ko osoko bilkura), ADIFek egindako alegazioa zati batean ontzat hartu izanaren ondoriozko aldaketekin.

Osoko bilkura honetan proposatzen da "Urretxuko Planeamenduko AASSen Berrikuspena, derrigorrezko txostenetatik sortutako zuzenketak sartuta, behin betiko onartzeko Dokumentua" onartzea, beti ere 2011ko apirilaren 12an egindako Planeamendu eta Etxebizitza Batzordeak aldeko txostena eman eta gero.

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Agirre andreak eskatu du hitza, eta berriz ere salatu du prozesua eramaten ari den modua, eta orain dela bi egun eman zaien agiri bat aztertzeko denbora falta, nahiz eta pentsatu ez dela aldaketa haundirik izango.

Esan du gainera, bere ustez, AASS hauek ez dutela gehiegi lagunduko Urretxu garatzeko. Gainera uste du prozesu hau zuzenketaz beteta dagoela, EAE osoan bakarra, eta horrenbestez, zalantzan jartzen du aholkularitzan gastatu den diru guztia, gero emaitza hau lortzeko. Azkenik aipatu du bere ustez ez dela denborarik izango prozesu honi amaiera emateko legealdia bukatu baino lehen, eta beraz berriro heldu beharko zaiola gaiari.

planeamiento de Urretxu incluidas sus Variaciones, derivadas del informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (Pleno 17-11-2010), con los cambios derivados de la estimación parcial de la alegación de ADIF.

En la presente sesión plenaria, se propone aprobar el "Documento para aprobación definitiva de Revisión de NN.SS de planeamiento de Urretxu introducidas las correcciones derivadas de los informes preceptivos", tras dictamen favorable de la Comisión de Planeamiento y Vivienda celebrada el 12 de abril de 2011 pasado.

Iniciado el turno de intervenciones, pide la palabra la sra. Agirre para denunciar nuevamente la forma en que se está llevando a cabo el proceso, y la falta de tiempo para estudiar un documento que se les ha facilitado hace dos días, a pesar de suponer que los cambios no serán muchos.

Sigue diciendo que a su juicio, estas NN,SS no van a ayudar mucho a que Urretxu se desarrolle. Además piensa que este es un proceso, plagado de correcciones, único en toda la CAPV, cuestionándose por tanto el dinero gastado en asesores para obtener este resultado. Por último señala que cree que no va a haber tiempo para finalizar con este proceso antes de acabarla legislatura, por lo que nuevamente se tendrá que retomar el asunto.

Cantero jaunak hartu du hitza, eta aditzera eman du gaurko ekitaldia formalismo hutsa dela, eta ez duela ezer aldatzen; beraz, PSE-EEk bere jarrera mantenduko du. Esan du gainera AASS berri batzuen aldekoak izan direla, aurrekoekin ados ez zeudelako, eta horregatik eman zuten tramitazioa etetearen aldeko botoa. Nolanahi ere, esan du AASS hauek ere ez dutela kontsensurik izan. Esan du gainera euren hauteskunde programan AASS hauek aldatzeko beharra jasoko dutela, euren iritziz ez dutelako herriaren interesari erantzuten. Horregatik guztiagatik, egitasmo honen aurka bozkatzen jarraituko dute.

Lete jaunak eskatu du hitza, eta Agirre andreari esan dio beraren ustez ere ez dela horrelako prozesurik izan Euskadi guztian, baina proiektu hau aurrera ateratzeko jarri izan diren oztopo guztiengatik. Esan du gainera berarentzat AASS onak direla, herriarentzat aukera berriak ahalbidetzen dituztenak.

Alkate jaunak aditzera eman du ezin duela onartu Agirre andreak esandakoa, alegia, AASS hauek ez direla onak herriarentzat; berarentzat izango da hori, prozesu honetan galtzaile atera delako. Esan dio proiektua babesten duten gainontzeko zinegotziak ere herriaren ordezkari direla, eta herritarrentzat onak direla diote. Esan dio gainera proiektua desegiteko egin dituen ahalegin guztiak eraikitzeko egin izan balitu, prozesu guztia eta baita

Pide la palabra el sr. Cantero, quien dice que el acto de hoy es un mero formalismo en el que nada cambia, por lo que el PSE-EE mantendrá su postura al respecto. Sigue diciendo que han sido partidarios de unas nuevas NN.SS porque no estaban de acuerdo con las anteriores, y es por ello que votaron a favor de la suspensión de su tramitación. No obstante dice que estas NN.SS tampoco han tenido consenso. Añade que en su programa electoral recogerán la necesidad de modificar estas NN.SS por entender que no sirven a los intereses del municipio. Es por todo ello que siguen votando en contra de este proyecto.

Pide la palabra el sr. Lete, diciendo a la sra. Agirre que también el cree que no ha habido otro proceso igual en Euskadi, pero por todos los obstáculos que se le han ido poniendo para llevar adelante el proyecto. Añade que para el son unas buenas NN.SS que posibilitan nuevas oportunidades al municipio.

El sr. Alcalde manifiesta que no puede aceptar que la sra. Agirre diga que las presentes NN.SS no son buenas para el municipio, dado que será así para ella que sale perdedora en todo este proceso. Le dice que el resto de concejales que apoyan el proyecto también representan al municipio, y mantienen que son buenas para su ciudadanía. Sigue diciéndole que si todos los esfuerzos realizados para destruir el proyecto lo hubieran sido

proiektua bera ere ezberdina izango zela.

para construir, todo el proceso e incluso el proyecto hubiera sido distinto.

Agirre andreak argitu du berak esan duela EAJren iritziz hauek ez direla AASS onenak Urretxurentzat. Esan du gainera EAJk alegazioak aurkeztu dituela, proposamen zehatz batzuekin, eta era konstruktiboan, baina ez direla kontuan izan; beraz, ezin zaie esan eraikitzeko esfortzurik egin ez dutenik. Esan du gainera EAEn alderdi politiko guztietako udalerriak daudela, eta inon ere ez dutela arazo eta hutsune guzti horiek izan; hortaz, bere ustez, gobernu taldeak ezin die besteei jarri erantzukizuna.

La sra. Agirre aclara que lo que ha dicho es que para el PNV no son las mejores NN.SS para Urretxu. Sigue diciendo que el PNV ha presentado alegaciones con propuestas concretas y de modo constructivo, que no han sido tenido en cuenta, por lo que no se le puede decir que no han hecho esfuerzos para construir. Añade que en la CAPV hay municipios de todos los signos políticos, y que en ninguno han tenido todos estos problemas y defectos, por lo que entiende que el equipo de gobierno no puede responsabilizar a los demás por ello.

Lete jaunak hitza eskatu du eta Agirre andreari gogora ekarri dio aurreko AASSen proiektuan, Irimo industriala zela, eta orduan ere EAJ ez zela ados izan.

El sr. Lete pide la palabra para recordar a la sra. Agirre que en el anterior proyecto de NN.SS, en el que Irimo era industrial, el PNV tampoco estuvo de acuerdo con las mismas.

Alkate jaunak Agirre andreari esan dio esandakoa bere talde politikoaren, EAJren, iritzia izango zela, baina adierazi duen moduan baieztapen absolutua ematen zuen. Era berean eskatu dio berriro irakur ditzala alegazioak, zeintzuk diren konstruktiboak eta zenbat destruktiboak egiaztatzeko

El sr. Alcalde le dice a la sra. Agirre que lo dicho sería opinión y de su grupo político, el PNV, pero de la forma que lo ha manifestado resultaba una afirmación absoluta. Asimismo le pide que vuelva a leer las alegaciones, que ella denomina propuestas, para comprobar cuáles son constructivas y cuántas destructivas.

Agirre andreak berriro eskatu du hitza, eta aditzera eman du ados dagoela Lete jaunarekin esan duenean Urretxuk AASSak behar dituela, ekonomiak gora egiten duenean prest egoteko, baina

La sra. Agirre pide la palabra nuevamente, y dice que está de acuerdo con el sr. Lete en que Urretxu necesita NN.SS para estar preparados cuando la economía repunte, pero le indica que hay muchas formas de

Urretxuko udala

adierazi dio modu asko daudela hirigintz-planeamendua egiteko. Esan du gainera AASS berrikusteko aurreko prozesuan azaldu zutela Irimoko eremua industrial jarraitzea nahi zutela eta baita ere zergatik ez zituzten arauak onartu. Era berean gogora ekarri du ez zirela tramitazioa etetearen aldeko izan, eta uste zuten, eta hala esan zuten, aurrera egin behar zela kontsensuatua zegoenarekin. Irimoko gunea geldi dagoela egia da, baina ez delako egon beste ezer egiteko borondaterik. Esan du gainera EAJ alderdiak agindu duen herrietan jarduera ekonomikoa sustatzeko lan egin dela, eta horietako batzuetan, lehengo Madaya bezalako guneak zituztenetan, lortu egin da gainera. Nolanahi ere, ez dute ikusten Irimo bizitegi gune gisa, uste baitute errotondatik Legazpi aldera eremu industriala izan behar duela.

hacer planeamiento urbanístico. Sigue diciendo que en el anterior proceso de revisión de NN.SS explicaron que querían que la zona de Irimo siguiera industrial y también por qué no aprobaron las mismas. También recuerda que no fueron favorables a la suspensión de la tramitación , y que creían, como así lo dijeron, que había que llevar adelante aquello en que había consenso. Respecto a que la zona Irimo está parado, dice que así es pero porque no ha habido voluntad para otra cosa. Añade que en municipios gobernados por el PNV se ha trabajado para fomentar la actividad económica, y así se ha logrado en algunos de ellos que contaban con zonas como la antigua Madaya. No obstante Irimo no la ven como zona residencial, ya que creen que de la rotonda hacia Legazpi la zona debe ser industrial.

Agirre andreak egin duen aipamenari dagokionez, alegia, EAJ alderdiak ere eman dezakeela bere iritzia aurkeztu diren AASSak hobeak edo okerragoak diren iritzia, alkate jaunak gogora ekarri dio agian berak hurrengo legealdian izango duela aukera bere jarrera defendatzeko, eta beste batzuk, aldiz, ez dute aukera hori izango.

El sr. Alcalde ante la referencia efectuada por la sra. Agirre de que el PNV también puede dar su opinión respecto a la mayor o menor bondad de las NN.SS. que se han presentado, le recuerda que quizá ella si pueda defender su postura en la próxima legislatura, mientras que habrá otros que no podrán hacerlo.

Eztabaida amaituta, botoetara eraman da gaia; aldeko botoa eman dute alkate jaunak eta Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Mendia eta Martin (EB-Berdeak/Aralar) zinegotziek (7 boto), eta

Finalizado el debate se somete el asunto a votación, y con los votos a favor del sr. Alcalde y de los concejales sr@s Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Mendia y Martín (EB_berdeak/Aralar), {7 votos}, y los votos en contra de los

aurkako botoa Cantero (PSE), Pastor (PSE) eta Agirre (EAJ) (3 boto); horrenbestez, TAOLren 47. artikuluan eskatzen den gehiengo osoarekin, honako erabaki hau hartu da:

**Lehenengo.-** "Urretxuko Planeamenduko AASSen Berrikuspen Dokumentua, derrigorrezko txostenetatik sortutako zuzenketak sartuta" onartzea, baita ECIA delakoa ere. Onarpen honek behin-behineko izaera du, aurretik izaera honekin berarekin onartu ez den guztian.

**Bigarren.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea dokumentua, hala badagokio behin betiko onespena eman dezan, hori guztia 2011ko urtarrilaren 25ean egindako Diputatu Kontseiluan foru erakundeak erabakitako tramitazio etenaldia altxatu arretik.

**Hirugarren.-** Alkate jaunari ahalmena ematea behar diren agiri guztiak sina ditzan.

Eta beste gairik izan gabe, amaiera eman zaio batzarrari, akta honen hasieran zehazten den arratsaldeko zazpirak hogieta bost gutxi direnean, eta nik, Idazkariak, guzti horren fede ematen dut

ediles Cantero (PSE), Pastor (PSE), y Agirre (PNV), {3 votos}, y por tanto con la mayoría absoluta exigida en el art. 47 de la LRBRL ,se acuerda:

**Primero.-** Aprobar el "Documento de Revisión de NN.SS de planeamiento de Urretxu introducidas las correcciones derivadas de los informes preceptivos" y su correspondiente ECIA. Esta aprobación tiene carácter provisional en todo aquello que no haya sido aprobado con este carácter anteriormente.

**Segundo.-** Remitir el documento a la Diputación Foral de Gipuzkoa para que otorgue, en su caso, la oportuna aprobación definitiva, todo ello previo al levantamiento de la suspensión de la tramitación acordada por el ente foral en el Consejo de Diputados celebrado el 25 de enero de 2011, y que por el presente se acuerda solicitar.

**Tercero.-** Facultar al Sr. Alcalde para la firma de cuantos documentos fueran precisos.

Y no habiendo más asuntos que tratar se da por finalizada la presente sesión, siendo las dieciocho horas treinta y cinco minutos horas del día que encabeza la presente acta, de todo lo cual doy fe.

Urretxuko udala

akta